

*Jolastu eta ikasi
Elkanorekin*

Mariana uharteak



Jolastu eta ikasi Elkanorekin MARIANA UHARTEAK

Behin Magallaes itsasartea gurutzatutakoan, Ozeano Barean barrena nabigatzen ari ginen. Ontzie-tako eskifaiek hiru hilabete generamatzan lehorra zapaldu gabe. Gure indarren muturreraino heldu ginen, gaixo eta gose. Ez zegoen janaririk ia, eta ura egoera kaskarrean zegoen.



Egunak motel zihoazen, harik eta, azkenean, oihu batzuk entzun ziren arte... lurra, lurra! 1521eko martxoaren 6an, lehorra ikusi genuen. Guam irlara heldu ginen, Mariana uhartean artxipelagora. Han txamorroak topatu genituen, uharteko biztanleak, eta burdina eman genien janaren truke. Dena den, beti adi egon behar ginen, deskuidu txikiena era gure ontzietan lapurtzen saiatzeko baliatzen baitzuten.

Gatazka larri bat sortu zen txamorroek baimenik gabe Trinidad ontziko txalupa bat eramanean. Magallaes ez zegoen hura galtzeko prest, eta indarrez berreskuratu zuen. Egun batzuen buruan, hornitu ondoren eta Magallaesek Lapurren uharte izendatu zuen hartan atsedean hartu eta gero, espedizioak mendebalderantz jarraitu zuen.

Guam uhartean, arrisku handiena zen indigenak gure ontzietara igotzen zirela ahal zuten guztia lapurtzera: baxera, armak, sokak eta abar. Gure hurrengo mugarrian, baina, askoz arrisku handiagoak genituen zain.

